

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

eGela eskuliburua

ERABILTZAILEEN KUDEAKETA: PARTAIDEAK, TALDEAK ETA MATRIKULAZIOA

www.ehu.es

Edukien aurkibidea

"Partaideak" atalean dauden aukerak.....	3
Taldeak eta talde-multzoak.....	5
Atariko definizioa eta atalaren egituraren azalpena	5
Taldeak sortu eta erabiltzaileak esleitu.....	6
Taldeak.....	6
Talde-multzoak.....	10
"Taldea-aukeraketa automatikoa" jarduera.....	10
"Taldea-moduaren" konfigurazioa jardueretan edo ikastaroan.....	12
Jardueretan "Taldea-modua" erabili.....	12
"Taldea-modua" ikastaro mailan konfiguratu	13
Kasu praktikoa	14
Gogoratu beharreko alderdi garrantzitsuak.....	17
Matrikulatu erabiltzaileak.....	18
Atariko oharra.....	18
Partaideak > "Matrikulatu erabiltzaileak" aukeraren bidez matrikulatu.....	18

Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko eCampusak landu du. Eskuliburu hau eta eCampus-eko gainerako eskuliburuak web orri honetatik deskarga daitezke <https://www.ehu.eus/eu/web/ecampus/eskuliburuak>

Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.

“Partaideak” atalean dauden aukerak

“Partaideak” atalean honako hauek egin daitezke:

- Ikastaroan matrikulatutako **erabiltzaileen zerrenda ikusi**
- **Erabiltzaileen zerrenda iragazi**, bilaketa-irizpide desberdinen arabera

Hautatutako erabiltzaileekin ekintza ezberdinak egin, hala nola mezuak bidali edo hautatutako zerrenda hainbat formatutan deskargatu

Atal honetan aukera hauek ere aurki ditzakezu: **Taldeak/ Talde-multzoak kudeatu** eta **Matrikulatu erabiltzaileak**. Aukera horiek beste atal batzuetan lantzen dira, eskuliburu honetan bertan.

Atal honetara sartzeko, sakatu **“Partaideak”** (1) ezkerreko alboko zutabean. **Partaideen zerrenda** (2) erdialdean dago, **bilaketa-iragazkiak** erabiltzeko zabalgarri batekin batera (2.1), iragazki bat “Izenaren” edo “abizenaren” inizialen arabera (2.2) eta ekintzen menua “aukeratutako erabiltzaileekin” (2.3). Gainera, orri honetatik **“Matrikulatu erabiltzaileak”** (3) atalera eta erabiltzaileen kudeaketarekin lotutako hainbat aukeretara (Taldek, Matrikulazio-metodoak...) sar daitezke, **“Ekintza-menua”** (4) atalaren bidez.

The screenshot shows the 'Partaideak' (Partners) interface. On the left is a navigation menu with 'Partaideak' highlighted (1). The main area has a search bar with 'Aurkitu', 'Edozein', and 'Aukeratu' dropdowns (2.1), and buttons for 'Gehitu baldintza', 'Garbitu iragazkiak', and 'Aplikatu iragazkiak'. Below the search bar are filters for 'Izena' and 'Abizena' with 'Guztiak' and letter dropdowns (2.2). A table lists partners with columns for 'Izena / Abizena', 'Helbide elektronikoa', 'Rolak', 'Taldek', 'Azken sarrera ikastarora', and 'Egoera' (2). The table contains five entries for 'ikasle bat' through 'ikasle lau'. At the bottom, there is a dropdown for 'Aukeratutako erabiltzaileekin...' (2.3) and a 'Matrikulatu erabiltzaileak' button (3). A settings gear icon is in the top right (4).


Izena / Abizena	Helbide elektronikoa	Rolak	Taldek	Azken sarrera ikastarora	Egoera
ikasle bat	noreply@ehu.eus	Ikaslea	Talderik ez	Inoiz ez	Aktiboa
irakasle bat	noreply@ehu.eus	Irakaslea	Talderik ez	Orain	Aktiboa
ikasle bi	noreply@ehu.eus	Ikaslea	Talderik ez	Inoiz ez	Aktiboa
ikasle hiru	noreply@ehu.eus	Ikaslea	Talderik ez	Inoiz ez	Aktiboa
ikasle lau	noreply@ehu.eus	Ikaslea	Talderik ez	Inoiz ez	Aktiboa

“Partaideen” zerrendan ikasle guztiak edo batzuk bakarrik hauta ditzakegu, eta ekintza batzuk egin, hala nola mezu bat bidali edo ohar bat gehitu.

Lehenetsita, “Partaideen” zerrenda plataformarako azken sarbidearen arabera ordenatuta dago, eta lehenengo 20ak bakarrik erakusten dira. Hogei erabiltzaile baino gehiago daudenean, taularen behealdean menu bat agertzen da **gainerako orrialdeetara sartzeko** (1) eta **taula osoa orrialde bakar batean bistartzeko** aukera bat (2).

Bilaketak egiteko menuak hainbat iragazki konbinatzeko aukera ematen du, irudian ikus daitezkeen bezala. Eskuragarri dauden iragazkien menua (1) azaleratzen den leiho batean agertzen da irudian. "Taldeak" irizpidea ikastaroan taldeak daudenean bakarrik erakutsiko da.

Parteiden zerrendaren azpian, hautatutako erabiltzaileekin egin daitezkeen aukeren menua dago:



1. Lehenengo aukerak **"Bidali mezua"** (1), mezua bat bidaltzeko aukera ematen du (honi buruzko informazio gehiago ["komunikaziorako tresnak: mezularitza eta foroak"](#) eskuliburuko "mezularitza" atalean)
2. Bigarren aukerak, **"Gehitu ohar berria"** (2), erabiltzailearen profilean gordeko den testu-ohar bat gehitzeko aukera ematen du. Garrantzitsua da nabarmentzea oharrek hiru ikuspen-maila edo testuinguru izan ditzaketela (1, hurrengo irudian)




Imagen 1: Contexto de publicación de una "nota"



Ohar pertsonal bat egileak bakarrik ikusi ahal izango du. Ikastaro-ohar bat ikasgela birtualeko irakasle guztiek ikusi ahal izango dute. "Gune" mailako ohar bati dagokionez, **erabiltzailea matrikulatuta dagoen eGelako edozein ikastarotan irakasle-rola duten erabiltzaile guztiek ikusi ahal izango dute.**


3. Azkenik, **"Jaitsi honela datu-aula"** (3, aurreko irudian) aukerak erabiltzaile guztien edo batzuen datuak hainbat formatutan eskuratzeko aukera ematen du.

Taldeak eta talde-multzoak

Atariko definizioa eta atalaren egituraren azalpena

- **Talde bat** ikasgela birtual bateko ikasleen azpimultzo bat da. Jarduera batean ikasleak taldeka banatzeko erabil daiteke, edo baliabide edo jarduera batera eskuragarritasuna mugatzeko.
- **Talde-multzoak.** Bere eginkizun nagusia ikastaro berean talde-banaketa bat baino gehiago mantentzea da, ikasleentzako ibilbide nahasiak, akatsak edo bidalketa-galerak ekidituz. Adibidez, 10

kideko 3 talde dituen zeregin bat eta beste zeregin bat edo zenbait zeregin, 5 kideko 6 talderekin. Baliabide edo jarduera batera eskuragarritasuna mugatzeko ere erabil daiteke.



Gela birtual baten taldeen konfigurazioa bi faseetan banatzen da:

1. Lehenik eta behin, taldeak eta talde-multzoak sortzea, eta, ondoren, erabiltzaileak esleitzea. Ekintza horiek **Kudeaketa-panela** > **"Erabiltzailearen estekak"** > **"taldeak"** ataleko aukerekin egin daitezke. Baliagarria izan daiteke, halaber, **"Talde-aukeraketa automatikoa"** jarduera. Ekintza horiek **"Taldeak sortu eta erabiltzaileak esleitu"** atalean azaltzen dira.
2. Bigarrenik, talde eta talde-multzoak erabili nahi diren ikastaroko **jarduerekin** lotu behar dira, "Editatu ezarpenak" > "Moduluen ezarpen komunak" atalean. Edo ikastaro osoarekin, **"Kudeaketa-panela** > **"Ikastaroaren ezarpenak"** > **"Editatu ikastaroaren ezarpenak"** > **"Taldeak"** atalaren bidez. Ekintza horiek **"Talde-moduaren konfigurazioa jardueretan edo ikastaroan"** atalean azaltzen dira.

Hurrengo atalean, konfigurazioko **"kasu praktikoa"** bat agertuko da. Bertan, **ohiko akats** batzuk eta horiek nola saihestu azalduko da.

Taldeak eta talde-multzoak baliabideak edo jarduerak mugatzeko/eskuratzeko irizpide gisa erabiltzeari buruzko informazioa eskuratzeko, kontsultatu "Jardueren jarraipena egiteko tresnak, eskuragarritasuna mugatu eta dominak" eskuliburuko ["Mugatu eskuragarritasuna"](#) atala.

Taldeak sortu eta erabiltzaileak esleitu

Taldeak

Taldeak eta talde-multzoak antolatzeko bideak: **"Ikastaroaren kudeaketa"** > **Erabiltzailearen estekak** > **Taldeak** edota **Partaideak** > **"Ekintza-menua"** > **Taldeak**.

Orri honetan aukera hauek daude, hiru fitxatan antolatuta (1): **"Taldeak"**, **"Talde-multzoak"** eta **"Ikuspegi orokorra"**. Irudian, **Taldeak** fitxan dauden aukerak agertzen dira.

The screenshot shows the 'Adibide Ikastaroa Taldeak' (Example Course Groups) interface. At the top, there are three tabs: 'Taldeak' (highlighted in orange), 'Talde-multzoak', and 'Ikuspegi orokorra'. A red circle with the number '1' is placed over the 'Ikuspegi orokorra' tab. Below the tabs, the main content area is titled 'Adibide Ikastaroa Taldeak'. On the left, there is a list of groups: 'Grupo A (2)', 'Grupo B (1)', and 'Grupo C (1)'. A red circle with the number '3' is placed over the 'Grupo A (2)' entry. Below this list are three buttons: 'Editatu taldearen ezarpenak' (3.1), 'Ezabatu aukeratutako taldea' (3.2), and 'Sortu taldea' (2.1). A red dashed box encloses the 'Sortu taldea' (2.1), 'Sortu taldeak automatikoki' (2.2), and 'Inportatu taldeak' (2.3) buttons, with a red circle with the number '2' placed over the box. To the right of the interface, there is a section titled 'Aukeratutako taldean dauden kideak: Grupo A (2)'. Below this title is a list of students: 'Ikaslea', 'ikasle hiru (noreply@ehu.eus)', and 'ikasle lau (noreply@ehu.eus)'. Below this list is a button 'Gehitu/Kendu erabiltzaileak' (3.3).


Taldeak sortzen hasteko, sakatu "**Sortu taldea**" (2.1) eta eskuz editatu talde bakoitzaren formularioa edo "**Sortu taldeak automatikoki**" (2.2) aukera erabili talde-izen bat baino gehiago sortzeko, eredu bati jarraituz, eta, nahi izanez gero, erabiltzaileak ausaz esleitzeko.


Behin taldeak sortuta, honako hauetarako aukera daitezke (3): "**Editatu taldearen ezarpenak**" (3.1), "**Ezabatu aukeratutako taldea**" (3.2) edo "**Gehitu/ kendu erabiltzaileak**" (3.3).

Inportatu taldeak (2.3) aukeraren bidez, taldeen ezarpenak doikuntzak inporta daitezke (bere izena, deskribapena, matrikulazio-giltza, talde-multzoa...), komaz bereizitako datu-fitxategi bat erabiliz. Ez du balio erabiltzaileen esleipenak egiteko. [Ikusi xehetasunak Moodleren dokumentazioan.](#)


Hurrengo irudian, "**Sortu taldeak**" formularioaren aukerak ikus daitezke. Nahitaezko eremu bakarra "Taldearen izena" da, baina badira beste aukera batzuk ere: "**Matrikulazio-giltza**" (1), auto-matrikulazio-prozesu batean gako hori erabiltzen duten ikasleak talde batean automatikoki esleitzeko; "**Taldeko mezularitza**" (2), mezularitza-gunean taldekideentzat txat bat sortzen duenak eta "**Ezkutatu irudia**" (3). Eremu horretan "Bai" markatzen bada, taldearen ikonoa agertuko da foroko kideek bidalitako mezuetan.

▼ Orokorra




Taldearen izena 


Taldearen ID zenbakia 

Taldearen deskribapena





Bide-izena: p

Matrikulazio-giltza  *Egin klik testua idazteko*   **1**

Taldeko mezularitza  **2**

Ezkutatu irudia **3**

Irudi berria  Gehieneko tamaina fitxategi berrietarako: 20MB



Hurrengo irudiak, "**Sortu taldeak automatikoki**" formularioaren aukerak erakusten ditu. "**Izendatze-eskema**" eremuan (1) letra-iterazioak dituzten izenak ezar daitezke, @ karakterearen bidez (Taldea A, Taldea B...) edo zenbaki-iterazioak # karakterea erabiliz (1. Taldea, 2 Taldea...).

"**Sortze automatikoan oinarritua**" (2), "Taldea-kopurua" edo "Kideak taldeko" irizpideen artean hautatzeko aukera ematen du. Gainera, "**Taldekideak**" (5) atalean, hainbat irizpide hauta daitezke banaketa zein erabiltzaile-multzotan egingo den hautatzeko. "**Taldea-multzoa**" atalak (6) aukera ematen du talde-multzo berri edo lehendik dagoen batean sortutako taldeak antolatzeko.

Sortu taldeak automatikoki

▼ Orokorra

Izendatze-eskema ! ? **1**

Sortze automatikoan oinarritua **2**

Talde-kopurua edo kide-kopurua taldeko ! **3**

Taldeko mezularitza ? **4**

▶ Taldekideak **5**

▶ Talde-multzoa **6**

Hurrengo irudian, "**Taldekideak**" atala agertzen da, zabaldua. Aukera batzuk nabarmentzen dira.

- "**Aukeratu kideak talde-multzotik**" edo "**Aukeratu kideak taldetik**" (1) aukerarekin banaketa erabiltzaileen azpimultzo horretara muga daiteke. Adibidez, talde bat "bikoiztu" daiteke, talde bakarra sortu nahi dela ezarriz eta "Aukeratu kideak taldetik" aukeran talde bat hautatuz.
- "**Taldeetan dauden erabiltzaileak ez hartu kontuan**" (2) aukera markatuz gero, banaketa oraindik taldeka antolatuta ez dauden erabiltzaileei muga daiteke. Matrikulazioa GAUR programaren datuek kontrolatzen ez dutenean, eGelaPIren kasuan bezala, aukera hori erabil daiteke ikastaro baten bigarren edizioko erabiltzaileak antolatzeko.

Taldekideak

Aukeratu kideak rol honekin

Aukeratu kideak talde-multzotik **1**

Aukeratu kideak taldetik

Esleitu kideak

Saihestu azken talde txikia **2**

Taldeetan dauden erabiltzaileak ez hartu kontuan

Sartu soilik aktibo dauden matrikulazioak ?


Talde-multzoak

Talde-multzoak (1) fitxan, "**Sortu talde-multzoa**" (2) aukera dago. Talde-multzoak sortu ondoren, **taula** batek (3) "**Talde multzoaren**" izenak (3.1), talde-multzo bakoitzean sartutako "**taldeak**" (3.2), talde-multzo horiei lotutako "**Jardueren**" kopurua (3.3) eta "Editatu", "Ezabatu" eta "Erakutsi talde-multzoan dauden taldeak" (3.4) aukerak erakutsiko ditu.

Talde-multzoa	Taldea	Jarduerak	Editatu
AG1	1. Taldea, 2. Taldea, 3. Taldea	1	[Settings] [Delete] [Refresh]
AG2	Talde .A, Talde .B, Talde .C, Talde .D, Talde .E, Talde .F	2	[Settings] [Delete] [Refresh]

"Talde-aukeraketa automatikoa" jarduera

Jarduera honi esker, ikasleek zein taldetakoa izan nahi duten aukera dezakete. Jardueraren konfigurazio lehenetsian, ikasleek sortzen dituzte taldeak eta haien izenak aukeratzen dituzte. Gainera, ibilbide bat aukeratzeko ere erabil daiteke, adibidez, saio batean izena emateko edo ikastaro bat zein hizkuntzatan egin nahi den aukeratzeko.



Jarduera konfiguratzeko formularioak 3 atal espezifiko ditu. Hurrengo irudian "Orokorra" atala agertzen da. Bertan, jardueraren "**Izena**" ez ezik, **izena emateko epea** ere zehaztu daiteke (2). "**Aukeratu taldeak talde-multzoetatik**" (3) eremuan talde-multzo bat hautatuz gero, talde-multzo horretako taldeak bakarrik aukeratu ahal izango dira Azkenik, **beste aukera multzo batek** (4) taldeko kideen gutxieneko eta gehieneko kopuruak eta aukera daitekeen gehieneko talde-kopurua ezartzeko aukera ematen du.

Orokorra

Izena ❗ 1 Aukeratu zure taldea!

Deskribapena

Paragrafoa **B** *I*

Bide-izena: p

Erakutsi deskribapena ikastaroaren orrian ❗ 2

Zabalik hurrengo datatik aurrera 12 ▾ uztaila ▾ 2021 ▾ 14 ▾ 32 ▾ Gaitu

Zabalik hurrengo datara arte 12 ▾ uztaila ▾ 2021 ▾ 14 ▾ 32 ▾ Gaitu

Aukeratu taldeak talde-multzoetatik 3 Talde guztiak ▾ 4

Talde guztiak ▾
Talde guztiak
AG1
AG2

Gutxieneko kide-kopurua taldeko ❗

Gehieneko taldekide-kopurua. ❗

Partaide izateko gehieneko talde-kopurua ❗

Hurrengo irudian **"Baimen orokorrak"** atala ikus daiteke. Lehenetsita, **"Partaideak taldeak sor ditzakete"** (1) aukera markatuta dago. Ikasleek aukera ditzaketen taldeen ezarpenak aldez aurretik ezarri nahi badira, aukera hori desmarkatuta geratu behar da

▼ Baimen orokorrak

Partaideak taldeetara elkar daitezke ❗ 1

Partaideek taldeak utz ditzakete. ❗

Partaideek taldeak sor ditzakete ❗

Partaideek talde berrien izenak ezar ditzakete ❗

Partaideek taldeko deskribapena ezar eta edita dezake. ❗

Partaideek taldeak sor ditzakete ❗

Partaideek talde berrien izenak ezar ditzakete ❗

Partaideek taldeko deskribapena ezar eta edita dezake. ❗

Partaideek elkartu direneko taldeen pasahitzak ezar ditzakete. ❗

"Bestelako ezarpenak" atalak aukera guztiak desmarkatuta dauzka lehenetsita. **"Gainbegirale rolari"** (1) buruzko aukerak baliagarriak dira irakasle "laguntzailea" badago. **"Ezkatatu taldeko kideak ikasleei"** (2) aukera markatuz gero, ikasleek ez dituzte taldeko kideak ikusten hautaketa-formularioan, baina taldeko esleipenak ikus ditzakete "Partaideak" atalean.

▼ Bestelako ezarpenak

Gainbegiraleak taldeetara esleitu ? 1

Gainbegirale rola ?

Esleitutako gainbegiraleak erakutsi ?

Ezkutatu zerrendatik beteta dauden taldeak ?

Ezkutatu etendako ikasleak ?

Ezkutatu taldeko kideak ikasleei ? 2

Erakutsi mezua epea agortzean ?

Ezabatu taldea azken partaideak uzten duenean ?

Irudi honetan, ikasleei aurkezten zaien formularioa agertzen da.

Aukeratu zure taldea!


Taldea ▲ ▼	Taldearen deskribapena ▲ ▼	Guztira ▲ ▼	Kide ▲ ▼	Ekintza ▲ ▼
Talde A		0		ko kide izan 1
Talde B		0		ko kide izan
Talde C		0		ko kide izan
Talde D		0		ko kide izan
Talde E		0		ko kide izan

“Talde-moduaren” konfigurazioa jardueretan edo ikastaroan

“**Talde-modua**” aukeraren konfigurazioa jarduera espezifikoetan edo modu orokorrean ikasturte osorako egin daiteke.

Jardueretan “Talde-modua” erabili

“**Talde-modua**” jarduera guztietan aktiba daiteke, Glosarioa, Ikasgaia eta SCORM paketeen izan ezik. “Talde-modua” konfiguratzeko, edizioa aktibatuta dagoela, dagokion jardueran hona joan behar da: **Editatu ezarpenak** > “**Moduluen ezarpen komunak**”.



"**Talde-modua**" (1) menuak 3 aukera ditu:

- **Talderik ez:** lehenetsita agertzen den aukera da, "**Talde-modua**" ikastaro mailan hautatuta dagoenean izan ezik.
- **Taldeen ezin elkar ikusi:** Talde bateko ikasleek beren taldearen espazioan baino ezin dute sartu eta parte hartu jardueraren barruan.
- **Taldeen elkar ikusten dute:** Talde bateko ikasleek beren taldearen espazioan parte har dezakete jardueraren barruan, baina gainerako taldeen espazioetan ere sar daitezke. Adibidez, foro batean, talde jakin bateko kideek mezuak idatz ditzakete beren taldearen foroaren espazioan, baina gainerako taldeen mezuak irakur ditzakete. Zereginen kasuan, "Taldeen ezin elkar ikusi" eta "Taldeen elkar ikusten dute" aukeren konfigurazioa berdina da.

Gainera, "**Talde-multzoa**" (2) eremuan talde-multzo bat aukera daiteke, aurretik sortu bada. Horrela, jardueran erabiltzen den taldekako banaketak talde-multzo horretan sartutako taldeak bakarrik hartzen ditu kontuan.

Zereginen dagokienez, bidalketak taldeka konfiguratzeko aukera espezifikoak daude, eta modu desberdinetan egin daiteke. [Bideo honetan formula desberdinen eta atxiki beharreko alderdi garrantzitsuen azalpena ikus daiteke.](#)

Azkenik, "**Gehitu talde/talde-multzo eskuragarritasun baldintza**" (3) sakatuz gero, dagokion murrizketa ezarriko da, aurreko "**Talde-modua**" eta "**Talde-multzoa**" eremuen konfigurazioaren arabera. Murrizketa hori ikusi eta editatzeko: jarduera > "**Editatu ezarepenak**" > "**Mugatu eskuragarritasuna**". Mugatu eskuragarritasuna aukerari buruzko informazio gehiago "Jardueren jarraipena egiteko tresnak, eskuragarritasuna mugatu eta dominak" eskuliburuko ["Mugatu eskuragarritasuna"](#) atalean.

"**Talde-modua**" ikastaro mailan konfiguratu

Talde-modua ikastaro mailan konfiguratu daiteke. Jarduera guztiak konfigurazio horretara egokituko dira. **Kudeaketa-panela** > "**Ikastaroaren kudeaketa**" > "**Editatu ikastaroaren ezarpenak**" > "**Taldeak**"


"**Talde-moduan**" (1) "**Taldeen ezin elkar ikusi**" aukera hautatuz gero, ikastaroko jarduera guztiak aukera honekin konfiguratu dira. Gainera, "**Partaideen**" zerrendan, ikasleek beren talde berekoak baino ez dituzte ikusiko. "**Taldeen elkar ikusten dute**" aukeratuz gero, ikasleek ikastaroko kide guztiak ikusiko dituzte "**Partaideen**" zerrendan.

"Behartu talde-modua" (2) eremuan "Bai" jartzen bada, "Talde-modua" aukerak ezin izango dira aldatu, baina jarduera bakoitzaren talde-multzoa aldatu ahal izango da, hurrengo irudian (1) ikus daitekeen bezala. "Lehenetsitako talde-multzo" bat (3) aukeratzen bada, hori izango da jarduera berriak sortzen direnean markatuta agertuko den talde-multzoa.

Kasu praktikoa

Gela birtual bat dugu, 30 ikaslerekin, eta hiru zeregin antolatuko ditugu taldeka.

1. Lehenengo zeregina 10 partaideko taldeetan egiten da. Irakasleak taldeak sortu ditu eta ikasle guztiak talde-multzo batean sartu ditu.
2. Bigarren eta hirugarren zereginak gehienez ere bost partaideko taldeetan egiten dira. Ikasleek zein taldeetan parte hartu nahi duten aukeratuko dute, "Talde-aukeraketa automatikoa" jarduera erabiliz. Ez dira talde guztiak osatzen, eta 5 ikasleko 4 talde eta 3 ikasleko 2 talde geratzen dira. Hau da, 4 ikaslek ez dute zeregin hori entregatuko.
3. Gainera, hirugarren zeregina hasteko unean, bi aldaketa daude taldeen osieran, A eta B taldeei eragiten dietenak.



"1. Zereginan", 10 erabiltzaileko 3 talde sortzen dira, eta "1. Talde-multzoan" sartzen dira.

Ondoren, "Editu ezarpenak" > "Moduluen ezarpen komunak" > "Talde-modua" > "Taldeek ezin elkar ikusi" aukeratu, eta "1. Talde multzoa" zehaztu "Talde-multzo" eremuan. Zereginaren taldekako bidalketarekin lotutako beste ezarpen batzuk berrikusteko, [kontsultatu lehen aipatutako bideoa](#).

Moduluen ezarpen komunak

Eskuragarritasuna

ID zenbakia

Talde-modua 1

Talde-multzoa 2

Gehitu talde/talde-multzo eskuragarritasun baldintza

"2. Zereginan", 6 talde sortzen dira, erabiltzailerik gabe, eta "2. Talde-multzoan" sartzen dira. Ondoren, "Talde-aukeraketa automatikoa" jarduera bat sortzen da, ediziorako epe batzuk zehaztuta. Garrantzitsua da "2. Zereginan" bidalketak baldin badaude, ikasleek ezin izatea taldeen osieran aldaketarik egin "Talde-aukeraketa automatikoa" jardueran.

Zabalik hurrengo datatik aurrera

Zabalik hurrengo datara arte

Gainera, honako konfigurazioa ezartzen da eremu hauetan:

- "Aukeratu taldeak talde-multzoetatik" eremuan, "2.Talde-multzoa" (1)
- "Gehieneko taldekide-kopurua" eremuan, 5 partaide (2)
- "Parteideek taldeak sor ditzakete" (3) laukia desmarkatzen da

Aukeratu taldeak talde-multzoetatik		Talde-multzoa 2	1
Gutxieneko kide-kopurua taldeko	?	0	
Gehieneko taldekide-kopurua.	?	5	2
Partaide izateko gehieneko talde-kopurua	?	1	

▼ Baimen orokorrak

Partaideak taldeetara elkar daitezke ?

Partaideek taldeak utz ditzakete. ?

Partaideek taldeak sor ditzakete ?

3

Ondoren, "2. Zeregina" sortzen da eta dagozkion aukerak markatzen dira taldeen konfigurazioan. Kasu honetan, ikasle guztiak ez daude taldeetan sartuta, eta, horregatik, garrantzitsua da "2. Zereginan" **Editatu ezarpenak > Taldeko bidalketen ezarpenak > Behartu taldeko kidea izatea bidalketa egiteko** (2) eremuan "Bai" markatzea, irudian erakutsitako gainerako ezarpenez gain. Bestela, "Taldea lehenetsi" bat sortzen da taldeetan ez dauden ikasleekin, eta partaide horien balizko bidalketak bata bestearen gainean gainidazten dira.

▼ Taldeko bidalketen ezarpenak

Ikasleek taldeka bidaliko dute	?	Bai	1
Behartu taldeko kidea izatea bidalketa egiteko	?	Bai	2
Behartu taldekide guztiak bidalketa egitera	?	Ez	
Ikasle-taldeen talde-multzoa	?	2. Talde-multzoa	3

Azkenik, "3. Zereginan", bi talde berri sortu behar dira aldaketak egin ahal izateko; bestela, "2. Zereginaren" bidalketak desantolatuko lirateke. Hori azkar egiteko **Taldeak > "Sortu taldeak automatikoki"** aukerak erabili. A Taldearen erreplika egiteko, talde bakarra sortuko dugu, "Taldea A 3.Zeregina" izenekoa, eta "Taldea A" taldeko partaideak bakarrik hartuko ditugu. Talde honetan beharrezko aldaketak egingo ditugu. B Taldearekin gauza bera egingo dugu.

Sortu taldeak automatikoki

▼ Orokorra

Izendatze-eskema ! ? **1**

Sortze automatikoan oinarritua

Talde-kopurua edo kide-kopurua taldeko ! **2**

Taldeko mezularitza ?

▼ Taldekideak

Aukeratu kideak rol honekin

Aukeratu kideak talde-multzotik

Aukeratu kideak taldetik **3**

Ondoren, "3. Talde-multzoa" sortu eta bi talde berriak ("Talde A 3. Zeregina" eta "Talde B 3. Zeregina") eta aldatu ez diren beste 4 taldeak sartuko ditugu.

Prozesua amaitutakoan, hau da erabilitako hiru talde-multzoen egitura:

Taldeak	Talde-multzoak	Ikuspegi orokorra	
Taldekideak			
Aukeratu kideak rol honekin: <input type="text" value="Ikaslea"/>			
Aukeratu kideak talde-multzotik: <input type="text" value="Bat ere ez"/>			
Aukeratu kideak taldetik: <input type="text" value="Talde A"/>			
Sortu talde-multzoak			
Taldekideak			
Talde-multzoa	Taldeak	Jarduerak	Editatu
1. Talde-multzoa	1. taldea, 2. taldea, 3. taldea	1 1	
2. Talde-multzoa	Talde A, Talde B, Talde C, Talde D, Talde E, Talde F	1	
3. Talde-multzoa	Talde C, Talde D, Talde E, Talde F, Talde A - 3. Zeregina , Talde B - 3. Zeregina 2	1	

Hiru talde-multzoez lotutako jarduera bat dute (1). 2. eta 3. Talde-multzoez 4 talde berdin dituzte, gorri adierazitako taldeak bakarrik aldatu baitira (2).

Gogoratu beharreko alderdi garrantsiak

- Jarduera bat taldeka antolatzen denean, ikasle batek ezin du talde bat baino gehiagotan egon, eGela/eGelaPIk horretarako aukera ematen badu ere, akatsak edo informazio-galerak eragin ditzakeelako.

- Bi jarduera desberdin baditugu, talde banaketa desberdinetan antolatua - adibidez, zeregin bat 15 ikasleko 3 talderekin eta beste bat 5 ikasleko 9 talderekin - talde banaketa horietako bakoitza talde-multzo ezberdin batean antolatu behar dugu.
- Ikasle-talde batek (adibidez, "Taldea A") zeregin batean bidalketa bat egin badu ("2.Zeregina") eta haren osaera aldatu nahi bada hurrengo zeregin baterako ("3.zeregina"), jatorrizko taldea gorde beharko dugu ("Taldea A"), "2.zereginaren" bidalketen antolaketa ez galtzeko eta talde berri bat sortu behar da, adibidez "Taldea A - 3.zeregina". Zeregin bakoitzerako talde-multzo desberdin bat sortu beharko da, non taldeen banaketa desberdina izango den. Horrek ez du lan handirik eskatzen, talde bat talde-multzo batean baino gehiagotan egon daitekeelako eta aldatu behar diren taldeak berehala "erreplika" daitezkeelako, kasu praktikoan agertzen diren "Sortu taldeak automatikoki" erabiliz.
- Zereginetan, gela birtual batek 30 ikasle baditu eta ikasleen zati bat bakarrik antolatu bada taldeetan, adibidez 26 (5 ikasleko 4 talde eta 3 ikasleko 2 talde) gainerako 4 ikasleak "Taldea lehenetsian" sartuta geratzen dira. Garrantzitsua da "Taldea lehenetsian" daudenen banakako bidalketak egitea saihestea, azken horrek aurrekoak gainidatziko baititu. Horretarako, talde-multzo bat sortu behar da bidalketak egingo dituzten taldeentzat, eta zereginetan honako hau zehaztu: **Editatu ezarpenak > Taldeko bidalketen ezarpena** > 1) lotutako talde-multzoa 2) ez dela onartuko taldeko kideak ez diren bidalketarik.
- Zeregin baten dauden taldeen konfigurazioa ezin da aldatu zereginaren kalifikazioa hasi denean.

Matrikulatu erabiltzaileak

Atariko oharra


Matrikulazioari dagozkion funtzionalitateak desberdinak dira eGela eta eGelaPIren kasuan; izan ere, eGelaren kasuan matrikulazioa GAUREkin sinkronizatuta dago, eta eGelaPIn, matrikulazioa eskuz egiten da.

eGelan, [Gela birtualen Kudeatzailearen](#) bidez, [GAUR](#)-eko datuak islatzen dira. Horrela, gela birtualak irakasle batek eskatuta eta GAUREn eskuragarri dauden datu akademikoak kontutan izanik sortzen dira. Prozesu horiez gain, eGelak aukera ematen du "Edizio-baimenik gabeko irakaslea" eta "Eskuz matrikulatutako ikaslea" rol espezifikoekin erabiltzaileak matrikulatzeko.


eGelaPIk erabiltzaileak eskuz matrikulatzeko aukera ematen du, ondoko rolak erabiliz: "Irakaslea", "Edizio-baimenik gabeko irakaslea" eta "Ikaslea". Gainera, "CSV gunetik matrikulatzeko" aukera dago, ikasleen matrikulazio masiboa ahalbidetzen duena eta baita plataforman inoiz sartu ez diren eta, beraz, "Matrikulatu" aukeraren bidez lokalizatu ezin diren LDAP kontuen matrikulazioa. Informazio gehiago eGelaPI eskuliburuan.

Partaideak > "Matrikulatu erabiltzaileak" aukeraren bidez matrikulatu

eGelan "Edizio-baimenik gabeko irakaslea" eta "Eskuz matrikulatutako ikaslea" roletan matrikulatzeko: Partaideak > **"Matrikulatu erabiltzaileak"** (1). Bistaratzen den menu batek bilaketa egiteko eta matrikulazioa gordetzeko aukera ematen du. **"Edizio-baimenik gabeko irakaslea"** eta **"Eskuz matrikulatutako ikaslea"** rolak aukera daitezke **"Esleitu rola"** (2) eremuan.



Ikastaroan erabiltzaileak matrikulatzeko rola hautatu ondoren, "**Aukeratu erabiltzaileak**" (1) eremuan testu-kate bat sartu behar da, izenarekin, abizenarekin edo helbide elektronikoarekin lotuta. Emaizten zerrendan (2), sakatu matrikulatu nahi diren erabiltzaileen gainean.



Erabiltzaileari dagokion lerroa sakatu ondoren, goiko aldean hautatuta geratuko da (1). Bilaketa berriak egiten eta izen gehiago aukeratzeko jarrai daitezke. Bilaketa bukatu ondoren, sakatu "Matrikulatu erabiltzaileak" (2) prozesuarekin amaitzeko.

Matrikulatu erabiltzaileak ×

Matrikulazio-aukerak

Aukeratu erabiltzaileak 1

× ■ Izena Abizena noreply@ehu.eus

Abizena ▼

Esleitu rola

Eskuz matrikulatutako ikaslea ▾

[Erakutsi gehiago...](#)

2

Matrikulatu erabiltzaileak Utzi

"Edizio-baimenik gabeko irakaslea" eta "Eskuz matrikulatutako ikaslea" rolekin matrikulatutako ikasleak desmatrikulatzeko, "Ezabatu" ikonoa sakatu behar da (1). Gainera, rola alda daitke bi rol horien artean aukeratuta (2).

<input type="checkbox"/>	 ikasle bat	noreply@ehu.eus	Ikaslea 	1. taldea, Talde B 	2 egun 22 ordu	Aktiboa 
<input type="checkbox"/>	 irakasle bat	noreply@ehu.eus	Irakaslea 	Talderik ez 	35 segundo	Aktiboa 
<input type="checkbox"/>	 ikasle bi	noreply@ehu.eus	Ikaslea 	2. taldea, Talde D 	2 egun 22 ordu	Aktiboa 
<input type="checkbox"/>	 ikasle hiru	noreply@ehu.eus	Ikaslea 	1. taldea, Talde C 	Inoiz ez	Aktiboa 
<input type="checkbox"/>	 ikasle lau	noreply@ehu.eus	Ikaslea 	3. taldea, Talde E 	Inoiz ez	Aktiboa  1
<input type="checkbox"/>	 IZENA ABIZENA	noreply@ehu.eus	Eskuz matrikulatutako ikaslea  2	Talderik ez 	2 egun 22 ordu	Aktiboa  